

Aerochaleko Pro proiektuaren garapena eta arrakasta bermatzeko, ezinbestekoa da elkarte-sare estrategiko sendo bat ezartzea, proiektua aurrera eramateko beharrezkoak diren agenteak, aktoreak eta bazkideak argi identifikatuz. Elkarre horiei esker, negozio-eredua optimiza daiteke, arriskuak murriztu eta baliabide tekniko, logistiko eta komertzial egokiak eskuratu.

Proiektua merkatuan dagoen produktu baten hobekuntzan oinarritzen da; beraz, aurretik identifikatutako behar bati erantzuten dio eta arrakasta izateko probabilitate handia du. Hobekuntza hori gure ingurune klimatiko eta geografikora egokituta egongo da, bereziki Donostiako baldintzetara, erabiltzaileek ahalik eta esperientzia onena izan dezaten.

Aerochaleko Pro-ren helburua batez ere egunean zehar ordu asko eguzkipean lan egiten duten langileei zuzenduta dago, bereziki esfortzu fisiko handia egiten dutenei. Produktuaren xede nagusia beroak eragindako nekea murriztea eta lan-baldintzak hobetzea da, erosotasuna eta errendimendua handituz.

Proiektuan funtsezko elkarte estrategikoak beharrezkoak dira. Alde batetik, txamarra tekniko espezializatuak fabrikatzen dituen enpresa batekin elkarlanean arituko gara; bestetik, aireztatze-sistemak garatzen dituen enpresa batekin. Gure eginkizun nagusia bi produktu horiek integratzea izango da, produktu bakar, funtzional eta eraginkor bat sortzeko. Hornitzaile hauek proiektuaren oinarri nagusia dira, eta lehentasun handia dute.

Era berean, bazkide teknologikoek paper garrantzitsua izango dute produktuaren softwarearen eta balizko aplikazio mugikorraren garapenean. Aplikazio horrek aireztatze-sistema modu automatikoan erregulatzeko aukera emango du, eguraldiaren eta erabiltzailearen lehentasunen arabera, bezeroaren esperientzia hobetuz.

Merkaturatzeari dagokionez, produktuaren salmenta nagusiki webgunearen bidez egingo da. Bezeroak bai enpresak bai indibiduoak izan daitezke, eta ordainketa ordainketa bakarrean, transferentzia bidez egingo da. Horrez gain, banatzaile eta bazkide komertzialek merkatuan zabalkundea errazten lagunduko dute.

Produktuaren prezioa 80 eurokoa izango da unitateko. Hala ere, unitate kopuru jakin batetik aurrera deskontuak aplikatuko dira, bereziki enpresentzako eskaera handiak sustatzeko.

Azkenik, ikerketa-zentroekin, unibertsitateekin eta erabiltzaileen komunitateekin lankidetzan aritzeak produktuaren hobekuntza jarraitua ahalbidetuko du, klima-baldintza desberdinetara egokitzeko eta bezeroen inplikazioa eta leialtasuna epe luzera sendotzeko.